

UNESCO ETXEA - EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA,

1991n eratutako euskal elkarte, onura publikokotzat aitortua izan dena,  
eta harreman ofizialen estatusa duena UNESCOrekin  
eta aholku-emaille estatusa NBEko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurrean,

honako hau bilatzen ari da Bilboko egoitzarako,

## **GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA ARDURADUNA**

### **LANPOSTUAREN HELBURUAK, FUNTZIOAK ETA ZEREGINAK**

#### **Lanpostuaren helburuak, funtzioak eta zereginak**

UNESCO Etxearen Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Programaren kudeaketa eta exekuzioa zuzentzea. Programa horren helburua dasakontzea eta ikusgarri egitea zer-nolako funtzioa duen hezkuntzak garapen jasangarriaren eta giza eskubideen sustapenean, betiere pertsonak eta planeta erdigunean jarriz eta Nazio Batuen (bereziki, UNESCOren) ildoari jarraituz.

#### **Horretarako:**

Arduradunak eduki teorikoa adierazi behar du eta programaren lan-estrategia definitu, honako hauekeginez: proiektuaren eta dagozkion jardueren planifikazioa, koordinazioa, exekuzioa, ebaluazioa eta justifikazioa.

Horrez gain, parte hartu behar du erakundearen plangintza estrategikoan eta kudeaketa orokorrean, programa urteko helburuetara egokituz.

#### **Lanpostuan bete beharreko zeregin eta funtzio zehatzak:**

1. Nazio Batuen 2030 Agendari lotutako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren estrategia diseinatzea, inplementatzea eta ebaluatzea.
2. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako Proiektuak eta bertako jarduerak modu integralean kudeatzea (planifikazioa, formulazioa, exekuzioa, ebaluazioa eta justifikazioa) UNESCO Etxean.
3. Funtsak eta lankidetzak lortzea programaren estrategia gauzatzeko.
4. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren inguruko aholkularitza, eragile-lana, ikerketa, formakuntza eta sentsibilizazioa, tokiko mailan, estatuan eta nazioartean.
5. Tokiko eta nazioarte mailako elkarrizketak, aliantzak eta sareak koordinatzea Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako eragile nagusiekin.
6. Arloari lotutako talde profesionala eta talde boluntarioa koordinatzea.
7. Garapen jasangarrian eta gizarte-erlaketan hezkuntzak duen zereginari buruzko prozesu eta foroetan parte hartzea, Nazio Batuen esparruan eta estatu eta erkidego mailan.
8. Euskal instituzioei aholkularitza eta beharrezko erantzunak ematea hezkuntzaren arloan eta, puntualki, beste esparru batzuetan.

9. Erakundearen estrategia-guneetan parte hartzea, hau da, koordinazioan, jardueratan, jarraipenean eta ebaluazioan.
  - a) Erakundearen Plan Estrategikoaren prozesuetan parte hartzea, hots, ebaluazioan, elaborazioan eta jarraipenean,
  - b) Koordinazioaren, Lantaldearen eta Programaren bileretan parte hartzea,
  - c) Erakundearen jarduera nagusietan parte hartzea (Bazkideen Batzarra, Ohorezko Bazkideak, etab.).

## **BALDINTZAK**

### **Beharrezko formakuntza eta esperientzia (garrantziaren arabera ordenan):**

- Unibertsitateko titulua izatea, ahal dela, Pedagogian, Magisteritzan, Gizarte Zientzietan edo Politika Zientzietan.
- Gutxienez 5 urteko esperientzia izatea Gizarte Eraldaketarako proiektuen kudeaketan, eta prozesu guztiak barnean hartuta: proiektuen identifikazio eta formulazioa, funtsak lortzea, exekuzioa eta ebaluazioa (Marko Logikoaren metodologiari jarraituz).
- Lan-esperientzia izatea nazioarteko erakundeetan, NBEen, Europako instituzioetan, GGKEetan edo/eta gizarte-erakundeetan; nagusiki, garapen jasangarrirako, gizarte-eraldaketarako eta herritartasun globalerako hezkuntzari lotutako esparruetan.
- 2030 Agendak hezkuntzaren inguruan dituen ekimenen garapeneanezagutza eta esperientzia izatea, bai 4. GJHren ikuspegiari lotuta, bai alderdi zabalagoi lotuta ere: balioen hezkuntza, kulturartekotasuna, herritartasun globalerako hezkuntza...
- Esperientzia frogagarria eta trebetasunak izatea, honako hauek barne: komunikazio-gaitasuna, antolatze gaitasuna eta lanerako autonomia, etengabeko hobekuntzarako eta talde-lanerako jarrera.
- Formakuntza eta esperientzia izatea giza eskubideen eta generoaren ikuspegia sustatzen. Alor horietan egindako aktibismo-lana bereziki hartuko da aintzat.
- Euskaraz jakitea etalanerako ondo erabiltzen jakitea.
- Kanpoko hizkuntza bat jakitea eta lanerako erabiltzen esperientzia izatea (ingelesak lehentasuna du).
- Ofimatikako ezagutza aurreratua izatea eta Interneteko tresnak ondo erabiltzen jakitea.

### **Gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak:**

- Talde-lanerako eta pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna izatea (trebetasun sozialak).
- Gaitasuna izatea gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren arloan tokiko edota nazioarteko aliantzak eta sareak lortzeko, koordinatzeko, haietan parte hartzeko eta dinamizatzeke.
- Lanean nahiz harreman sozialetan sormena eta erabakitetasuna izatea, baita jarrera moldakorra eta proaktiboa izatea ere. Esperientzia izatea gazte eta helduentzako tailerrak dinamizatzen.
- Kultura-ehuna edo/eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako ehuna aurretik ezagutzea edo horiekiko harremana eduki izana.

- Unibertsitateko titulua izatea, ahal dela, Pedagogian, Magisteritzan, Gizarte Zientzietan edo Politika Zientzietan.
- Analisirako gaitasuna eta ikuspegi estrategikoa izatea.
- Lanerako zorrotasuna.
- Ahozko eta idatzizko adierazpen bikaina, modu laburrean eta motibatzailean komunikatzeko gaitasuna izanda.
- Jakin-min intelektuala Konpromisoa eta pentsamendu kritikoa.

Gainera, giza eskubideen eta genero-berdintasunaren alde lan egiteko motibazio handia eskatzen dugu, eta UNESCO Etxearen printzipioekin eta misioarekin bat etortzea.

### **LAN-BALDINTZAK**

Kontratu mugagabea, 6 hilabeteko probaldia barne. Arloko arduradunaren soldata, UNESCO Etxearen lan-harremanen esparruaren arabera. Lanaldi osoa.

Lantokia Bilbon dago, UNESCO Etxearen bulegoan. Lanean berehala hastea da asmoa.

### **HAUTAGAITZAK BIDALTZEA**

Lanpostua interesatzen zaion pertsonak Curriculum Vitae bidali beharko du, motibazio-gutunarekin batera, honako helbide elektroniko honetara: [hezkontza@unescoetxea.org](mailto:hezkontza@unescoetxea.org) 'Hezkuntza arduraduna' erreferentziarekin.

**Hautagaitzak bidaltzeko azken eguna: 2021eko apirilaren 16a**

Eskatzaile guztiekin harremanetan jarriko gara apirilaren 19tik 30era bitartean.

Probak eta elkarrizketak Bilbon izango dira 2021eko apirilan.

Aukeratutako pertsonari bilera egiteko dataren eta moduaren berri emango zaie.

Lanean hasteko data: 2021eko maiatza.